

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.) **2021eko abenduaren 11tik 17rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/12/14

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. – Lan hitzarmen kolektiboak.** – Ebazpena, 2021eko azaroaren 29koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratu eta argitaratzen den Segurtasun enpresen estatuko hitzarmen kolektiboaren Batzorde Paritarioak bidalitako ordainsarien taulen eguneratzeari dagokion akordioa. [20619 xedapena - 2 or.](#)

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/12/11

- **GORTE NAGUSIAK. – Premiazko neurriak.** – Ebazpena, 2021eko abenduaren 2koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila azaroaren 2ko 24/2021 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. Horren bidez, bonu bermatuen, inbertsio kolektiboko erakundeen mugaz gaindiko banaketaren, datu irekien eta sektore publikoko informazioa berrerabiltzearen, lineako transmisio jakin batzuei eta irrati eta telebista programen emankizunei aplika dakizkiekeen egile eskubideen eta antzeko eskubideen, zenbait inportazio eta hornidurari aldi baterako ezarritako salbuespenen, eta kontsumitzaileen eta errepide bidezko garraiobide garbi eta energetikoki efizienteen sustapenaren alorretako Europar Batasuneko zuzentarauen transposizioa egiten da. [20471 xedapena - 1 or.](#)
- **Gizarte Segurantza. Neurri fiskalak.** – Ebazpena, 2021eko abenduaren 2koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila Gizarte Segurantzaren alorreko eta babes sozialerako bestelako neurri fiskalei buruzko azaroaren 8ko 25/2021 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. [20472 xedapena - 1 or.](#)
- **Toki Ogasunak.** – Ebazpena, 2021eko abenduaren 2koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila azaroaren 8ko 26/2021 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. Horren bidez, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Toki Ogasunak arautzeko Legearen testuategina eguneratzen da Konstituzio Auzitegiaren duela gutxiko jurisprudentziara, hiri-lurren balio igoeraren gaineko zergari dagokionez. [20473 xedapena - 1 or.](#)

2021/12/14

- **OGASUNAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA. – Zergak. Tributu informazioa.** – HFP/1395/2021 Agindua, abenduaren 9koa, honako hauek aldatzen dituen: EHA/3851/2007 Agindua, abenduaren 26koa, zeinaren bidez onesten den 576 eredua, zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren autolikidaziakoa, eta zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren 06 aitorten eredua, salbuespenak

eta aurretiazko errekonozimendurik gabe ez zergapetzeko eredia onesten dituen; EHA/3012/2008 Agindua, urriaren 20koa, zeinaren bidez onesten den 347 eredia, Hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitortpenarena, eta haren diseinu fisiko eta logikoak, eta aurkezteko tokia, modua eta epea; HAP/2194/2013 Agindua, azaroaren 22koa, zeinaren bidez arautzen diren tributu arloko autolikidazio jakin batzuk, informazio aitortpenak, zentsu aitortpenak, jakinarazpenak eta itzulketa eskaerak aurkezteko prozedurak eta baldintza orokorrak; eta HAC/171/2021 Agindua, otsailaren 25ekoa, zeinaren bidez onesten den 05 eredia, "Zenbait garraibideren gaineko zerga berezia. Ez zergapetzeko, salbuesteko eta zerga oinarria murrizteko eskaera", eta hura aurkezteko lekua, modua, epea eta prozedura ezartzen diren. [20577 xedapena - 9 or.](#)

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. – Mendekotasun egoeran dauden pertsonak.** - 1057/2021 Errege Dekretua, azaroaren 30ekoa, zeinaren bidez aldatzen den Mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzaileen Gizarte Segurantzara arautzeko maiatzaren 11ko 615/2007 Errege Dekretua. [20578 xedapena - 4 or.](#)

2021/12/15

- **Elikatze katea.** - 16/2021 Legea, abenduaren 14koa, elikatze katearen funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzko abuztuaren 2ko 12/2013 Legea aldatzen duena. [20630 xedapena - 30 or.](#)
- **Nekazaritzako ustiategiak.** - APA/1398/2021 Agindua, abenduaren 1ekoa, 2022. urteko erreferentziako errenta finkatzen duena. [20634 xedapena - 1 or.](#)
- **Ezohiko neurriak.** - PCM/1400/2021 Agindua, abenduaren 14koa, zeinaren bidez argitaratzen den 2021eko abenduaren 14ko Ministroen Kontseiluaren erabakia. Horren bidez, Afrika hegoaldeko zenbait herrialderen eta espainiar aireportuen arteko hegaldiak mugatuta, COVID-19aren hedatzea eta kutsatzeak mugatzeko ezohiko neurriak hartzen dituen 2021eko azaroaren 30eko Ministroen Kontseiluaren erabakia aldatzen eta luzatzen da. [20637 xedapena - 3 or.](#)
- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA. – Antolamendua.** – Ebazpena, 2021eko abenduaren 2koa, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarena, Gizarte Segurantzako derrigorrezko diru-bilketako zenbait unitateren lurralde-eremua aldatzen duena. [20639 xedapena - 3 or.](#)

2021/12/16

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.** –Animalien erregimen juridikoa. - 17/2021 Legea, abenduaren 15ekoa, Kode Zibila, Hipoteken Legea eta Prozedura Zibilaren Legea aldatzen dituen, animalien erregimen juridikoari dagokionez. [20727 xedapena - 10 or.](#)
- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. – Landareen osasuna.** - 1054/2021 Errege Dekretua, azaroaren 30ekoa, zeinaren bidez ezartzen eta arautzen diren Landareen operadore profesionalen erregistroa, landare osasunerako produktuak egiteko baimena duten operadore profesionalak bete beharreko neurriak eta ugalketarako landare materialaren operadore profesionalen

betebeharrak, eta nekazaritzaren alorreko zenbait errege dekretu aldatzen diren. [20730 xedapena - 37 or.](#)

2021/12/17

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. – Elikatze katea.** – Errakuntzen zuzenketa, honako lege honetan: 16/2021 Legea, abenduaren 14koa, elikatze katearen funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzko abuztuaren 2ko 12/2013 Legea aldatzen duena. [20809 xedapena - 1 or.](#)

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2021/12/13

- **XEDAPEN OROKORRAK. - LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA.** - AGINDUA, 2021eko azaroaren 24koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan automobiletan egiten den bidaiarien herriz kanpoko garraio publikoaren tarifa berriak onartzeko dena. [6165 xedapena - 2 or.](#)

2021/12/15

- **XEDAPEN OROKORRAK. - LEHENDAKARITZA.** - 47/2021 DEKRETUA, abenduaren 14koa, lehendakariarena, zeinaren bidez xedatzen baita establezimendu, ekitaldi, jarduera eta leku gehiagotara zabaltzea Osasuneko sailburuaren 2021eko azaroaren 17ko Aginduaren bidez ezarritako Europar Batasuneko Covid Ziurtagiri Digitala (QR) eskatzeko derrigortasuna. [6124 xedapena - 3 or.](#)

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2021/12/14

- **Bizkaiko Batzar Nagusiak.** - 6/2021 FORU ARAUA, abenduaren 13koa, ekonomia suspertzeko neurriak, BATUZ sistema borondatez aplikatzea sustatzeko neurriak eta beste zerga-aldaketa batzuk onartzen dituen. [I-975 xedapena - 45 or.](#)

2021/12/15

- **Ogasun eta Finantza Saila.** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 2083/2021 FORU AGINDUA, abenduaren 2koa. Honen bidez, aldatu egiten da 1561/2015 Foru Agindua, uztailaren 29koa, zeinaren bidez establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak aitortzeko erabili behar den ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren aitorpenerako 210 eredia onesten baita. [I-1013 xedapena - 9 or.](#)
- Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 2084/2021 FORU AGINDUA, abenduaren 2koa. Honen bidez, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren abenduaren 14ko 2198/2016 Foru Agindua aldatzen da, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urteko laburpen-aitorpenaren 390 eredia eta haren aurkezpen telematikoa onesten dituen. [I-1014 xedapena - 5 or.](#)

- Bizkaiko Foru Aldundiaren 158/2021 FORU DEKRETUA, abenduaren 14koa; honen bidez, 2022. eta 2023. urteetarako BATUZ sistemari borondatez atxikitzeko baldintzak eta aplikatu daitekeen konpentsazioa ezartzen dira, eta aldaketak egiten dira tributuerregelamendu batzuetan. [I-1017 xedapena - 9 or.](#)

2021/12/16

- **Ogasun eta Finantza Saila.** - 8/2021 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, abenduaren 14koa; honen bidez, iruzur fiskala prebenitzeko eta haren kontra borrokatzeko neurriak eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren eremuko premiazko beste batzuk hartzen dira, eta Balio Erantsiaren gaineko Zergan beste neurri batzuk. [I-1050 xedapena - 8 or.](#)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2021/12/13

- **DIPUTATU NAGUSIA.** - FDE-DN-2021-203 Foru Dekretu-Ebazpena, abenduaren 3koa, 2021eko abenduaren 24a eta 31 egun baliogabetzat hartzen dituen. [7891 xedapena - 1 or.](#)

2021/12/17

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 652/2021 Foru Agindua, abenduaren 1ekoa, zeinaren bidez aldatzen baitira balio erantsiaren gaineko zergaren urteko aitortpen laburtzailea aurkezteko erabili beharreko 390, 392 eta 393 ereduak, eredu horien eranskin komuna eta haiek aurkezteko moduak. [7796 xedapena - 96 or.](#)
- 653/2021 Foru Agindua, abenduaren 1ekoa, zeinaren bidez aldatzen baita 553/2017 Foru Agindua, abenduaren 26koa, «Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga. Lan etekinen, jarduera ekonomikoen etekinen eta sarien gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak. Urteko laburpena» izeneko 190 eredua onartu, eta hura aurkezteko moduak eta epeak ezartzen dituen. [7797 xedapena - 15 or.](#)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2021/12/15

- Reglamento de Ejecución (UE) 2021/2226 de la Comisión, de 14 de diciembre de 2021, por el que se establecen las normas de desarrollo del Reglamento (UE) 2017/745 del Parlamento Europeo y del Consejo en lo que respecta a las instrucciones electrónicas para la utilización de productos sanitarios. [L 448/32 xedapena - 7 or.](#)
- Batzordearen 2021/2227 (EB) Betearazpen Erregelamendua, 2021eko abenduaren 14koa, zeinaren bidez aldatzen den 1178/2011 (EB) Erregelamendua, helikopteroetan denbora osoko eragiketetarako eta tresna bidezko eta mota jakineko hegaldi gaikuntzetarako entrenamenduetarako baldintzei dagokienez. [L 448/39 xedapena - 11 or.](#)



181 zk. / 2021 urtea

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO, 26 - BILBAO